

**DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA**

Aita Santuaren Misio Ekintzak

# **NIRE LEKUKO IZANGO ZARETE**

**DOMUND MISIO IGANDEA**

---

Urriak 23 Octubre

2022

---

# **SERÉIS MIS TESTIGOS**

**DIÓCESIS DE SAN SEBASTIÁN**

Obras Misionales Pontificias



**MENSAJE DEL SANTO PADRE FRANCISCO  
PARA LA JORNADA MUNDIAL DE LAS MISIONES 2022  
«Para que sean mis testigos» (Hch 1,8)**

*Queridos hermanos y hermanas:*

Estas palabras pertenecen al último diálogo que Jesús resucitado tuvo con sus discípulos antes de ascender al cielo, como se describe en los Hechos de los Apóstoles: «El Espíritu Santo vendrá sobre ustedes y recibirán su fuerza, para que sean mis testigos en Jerusalén, en toda Judea, en Samaría y hasta los confines de la tierra» (1,8). Este es también el tema de la Jornada Mundial de las Misiones 2022, que como siempre nos ayuda a vivir el hecho de que la Iglesia es misionera por naturaleza. Este año, nos ofrece la ocasión de conmemorar algunas fechas relevantes para la vida y la misión de la Iglesia: la fundación hace 400 años de la Congregación de Propaganda Fide –hoy, para la Evangelización de los Pueblos– y de la Obra de la Propagación de la Fe, hace 200 años, que, junto a la Obra de la Santa Infancia y a la Obra de San Pedro Apóstol, obtuvieron hace 100 años el reconocimiento de “Pontificias”.

Detengámonos en estas tres expresiones claves que resumen los tres fundamentos de la vida y de la misión de los discípulos:



**FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUA**  
**2022ko MISIOEN MUNDU JARDUNALDIRAKO**  
**«Nire lekuko izango zarete» (Eg 1,8)**

*Anai-arreba maiteok:*

Hitz horiek Jesusek zerura igo aurretik bere dizipuluekin izan zuen azken elkarrizketakoak dira, Apostoluen Eginak liburuan deskribatzen den bezala: «Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren bazterreraino» (1,8). Horixe da, halaber, 2022 Misioen Mundu Jardunaldiaren gaia. Beti bezala, Eliza berez misiolaria dela bizitzen laguntzen digu. Aurten, Elizaren bizitzarako eta egitekorako data garrantzitsu batzuk ospatzeko aukera emango digu: duela 400 urte *Propaganda Fide* Kongregazioa sortu zen –gaur egun, Herrien Ebanjelizaziorako izena duena– eta duela 200 urte Fedea Zabaltzeko Egintza, Haur Misioarien Egintza eta San Pedro Apostoluaren Egintzarekin batera, duela 100 urte “Aita Santuarenak” izatearen aitortza jaso zutenak.

Azter ditzagun giltzarri diren hiru adierazpen hauetan, ikasleen bizitzaren hiru oinarriak eta misioa laburbiltzen dituztenak: «Nire lekuko izango zarete», «Lurraren bazterreraino» eta

«Para que sean mis testigos», «hasta los confines de la tierra» y «el Espíritu Santo vendrá sobre ustedes y recibirán su fuerza».

1. «Para que sean mis testigos» - La llamada de todos los cristianos a dar testimonio de Cristo

Este es el punto central, el corazón de la enseñanza de Jesús a los discípulos en vista de su misión en el mundo. Todos los discípulos serán testigos de Jesús gracias al Espíritu Santo que recibirán: serán constituidos tales por gracia. Dondequiera que vayan, allí donde estén. Como Cristo es el primer enviado, es decir misionero del Padre (cf. *Jn* 20,21) y, en cuanto tal, su “testigo fiel” (cf. *Ap* 1,5), del mismo modo cada cristiano está llamado a ser misionero y testigo de Cristo. Y la Iglesia, comunidad de los discípulos de Cristo, no tiene otra misión si no la de evangelizar el mundo dando testimonio de Cristo. La identidad de la Iglesia es evangelizar.

Una lectura de conjunto más detallada nos aclara algunos aspectos siempre actuales de la misión confiada por Cristo a los discípulos: «Para que sean mis testigos». La forma plural destaca el *carácter comunitario-elesial* de la llamada misionera de los discípulos. Todo bautizado está llamado a la misión en la Iglesia y bajo el mandato de Iglesia. La misión por tanto se realiza de manera conjunta, no individualmente, en comunión con la comunidad eclesial y no por propia iniciativa. Y si hay alguno que en una situación muy particular lleva adelante la misión evangelizadora solo, él la realiza y deberá realizarla siempre en comunión con la Iglesia que lo ha enviado. Como enseñaba san Pablo VI en la Exhortación apostólica *Evangelii nuntiandi*, documento que aprecio mucho: «Evangelizar no es para nadie un acto individual y aislado, sino profundamente eclesial. Cuando el más humilde predicador, catequista o Pastor, en el lugar más apartado, predica el Evangelio, reúne su pequeña comunidad o administra un sacramento, aun cuando se encuentra solo, ejerce un acto de Iglesia y su gesto se enlaza mediante relaciones institu-

«Zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue».

1. «Nire lekuko izango zarete» *Kristoren lekukotza emateko kristau guztien deia*

Horixe da, hain zuzen ere, Jesusen irakaspenaren muina ikasleei munduan duen egitekoa adieraziz. Ikasle guztiak Jesusen lekuko izango dira, Espiritu Santuari esker: graziaz izango dira lekuko eginak. Doazen tokira doazela, dauden lekuan. Kristo lehen bidalia denez, hau da, Aitaren misiolaria (ik. *Jn 20,21*) eta, bere horretan, bere “lekuko leiala” (ik. *Ap 1,5*), era berean, kristau bakoitzak Kristoren misiolari eta lekuko izan behar du. Eta Elizak, Kristoren dizipuluaren elkarteak, ez du beste zereginik, mundua ebanjelizatzea baizik, Kristoren testigantza emanez. Elizaren nortasuna ebanjelizatzea da.

Irakurketa osoko eta xeheago batek argitzen dizkigu Kristok ikasleei emandako misioaren alderdi batzuk, beti gaur egungoak direnak: «Nire lekuko izango zarete». Era plurala erabiliz, ikasleen egiteko misiolariaren elkarte zentzua nabarmentzen da. Bataiatu guztiak misiora deituta daude Elizan, Elizaren agindupean. Misioa, beraz, batera egiten da, ez banaka, eliz elkartearekin batean, eta ez norebere ekimenez. Eta egoera oso berezi batean ebanjelizazio-misioa bakarrik betetzen duen norbait badago, berak egingo du, baina bidali duen Elizarekin bat eginik beti ere. Asko estimatzen dudana *Evangelii nuntiandi* Aholku-hitz apostolikoan San Paulo VI.ak erakusten zuen bezala: «Ebanjelizatzea ez da inorentzat bakana eta bakarkakoa, elizarena den egingizuna baizik. Predikatzaile xumeenak, katekistak edo artzainak, lekurik baztertuenean, Ebanjelioa predikatzen duenean, bere elkarte txikia biltzen duenean edo sakramentua ematen duenean, nahiz eta bakarrik egon, Elizaren egintza bat egiten du eta bere keinua harreman instituzionalen bidez lotzen da, bai eta graziari esker hor ezkutuan dauden lotura ikusezin eta erroen

cionales ciertamente, pero también mediante vínculos invisibles y raíces escondidas del orden de la gracia, a la actividad evangelizadora de toda la Iglesia» (n. 60). En efecto, no es casual que el Señor Jesús haya enviado a sus discípulos en misión de dos en dos; el testimonio que los cristianos dan de Cristo tiene un carácter sobre todo comunitario. Por eso la presencia de una comunidad, incluso pequeña, para llevar adelante la misión tiene una importancia esencial.

En segundo lugar, a los discípulos se les pide vivir su vida personal en clave de misión. Jesús los envía al mundo no sólo para realizar la misión, sino también y sobre todo para vivir la misión que se les confía; no sólo para dar testimonio, sino también y sobre todo para ser sus testigos. Como dice el apóstol Pablo con palabras muy conmovedoras: «Siempre y en todas partes llevamos en el cuerpo la muerte de Jesús, para que también la vida de Jesús se manifieste en nuestro cuerpo» (2 Co 4,10). La esencia de la misión es dar testimonio de Cristo, es decir, de su vida, pasión, muerte y resurrección, por amor al Padre y a la humanidad. No es casual que los Apóstoles hayan buscado al sustituto de Judas entre aquellos que, como ellos, fueron “testigos de la resurrección” (cf. Hch 1,22). Es Cristo, Cristo resucitado, a quien debemos testimoniar y cuya vida debemos compartir. Los misioneros de Cristo no son enviados a comunicarse a sí mismos, a mostrar sus cualidades o capacidades persuasivas o sus dotes de gestión, sino que tienen el altísimo honor de ofrecer a Cristo en palabras y acciones, anunciando a todos la Buena Noticia de su salvación con alegría y franqueza, como los primeros apóstoles.

Por eso, en definitiva, el verdadero testigo es el “mártir”, aquel que da la vida por Cristo, correspondiendo al don de sí mismo que Él nos hizo. «La primera motivación para evangelizar es el amor de Jesús que hemos recibido, esa experiencia de ser salvados por Él que nos mueve a amarlo siempre más» (Exhort. ap. *Evangelii gaudium*, 264).

bidez ere, Eliza osoaren ebanjelizazio-jarduerarekin(60. zkia.)» (60. zkia.). Izan ere, ez da kasualitatea Jesus Jaunak bere ikasleak binaka bidali izana; kristauek Kristori buruz ematen duten lekukotasuna, batez ere, elkartekoa da. Horregatik, misioa aurrera eramateko elkarte txiki bat izateak funtsezko garrantzia du.

Bigarrenik, ikasleei beren *bizitza pertsonala misioan bizitzeko eskatzen zaie*. Jesusek mundura bidaltzen ditu, ez bakarrik misioa egiteko, baita, batez ere, beraien esku jarri duen misioa *bizitzeko* ere; ez bakarrik lekukotza *emateko*, baita, batez ere, lekuko *izateko* ere. Paulo apostoluak oso hitz hunkigarriekin dioenez: «Nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu guregan, Jesusen bizia ere guregan ager dadin» (2 Ko 4,10). Misioaren funtsa Kristoren lekukotza ematea da, hau da, Aitaren eta gizateriaren alde eskaini duen haren bizitza, nekaldia, heriotza eta piztueraren berri ematea. Ez da kasualitatea apostoluek Judasen ordezkoa bilatu izana, haiek bezala “piztueraren lekuko” izan zirenen artean (ik. Eg 1,22). Kristoren, Kristo piztuaren, testigantza eman behar dugu, eta haren bizitza partekatu behar dugu. Kristoren misiolariak ez dira beren buruaren berri ematera bidaliak, beren kalitate edo gaitasun limurtzaileak edo kudeaketa-dohainak erakustera; aitzitik, ohore handia dute Kristo hitzez eta ekintzetan eskaintzeko, eta guztiei salbamenaren Berri Onaren berri pozez eta zintzotasunez emateko, lehen apostoluak bezala.

Horregatik, azken batean, benetako lekukoa “martiria” da, Kristorengatik bizitza ematen duena, Berak egin zigun bere buruaren dohainari erantzunez. «Ebanjelizatzeke lehen motibazioa Jesusengandik jasotako maitasuna da, Berak salbatuak izatearen esperientzia: Bera gero eta gehiago maitatzera garamatzana» (*Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa, 264).

En fin, a propósito del testimonio cristiano, permanece siempre válida la observación de san Pablo VI: «El hombre contemporáneo escucha más a gusto a los que dan testimonio que a los que enseñan, o si escuchan a los que enseñan, es porque dan testimonio» (Exhort. ap. *Evangelii nuntiandi*, 41). Por eso, para la transmisión de la fe es fundamental el testimonio de vida evangélica de los cristianos. Por otra parte, sigue siendo necesaria la tarea de anunciar su persona y su mensaje. Efectivamente, el mismo Pablo VI prosigue diciendo: «Sí, es siempre indispensable la predicación, la proclamación verbal de un mensaje. [...] La palabra permanece siempre actual, sobre todo cuando va acompañada del poder de Dios. Por esto conserva también su actualidad el axioma de san Pablo: “la fe viene de la audición” (Rm 10,17), es decir, es la Palabra oída la que invita a creer» (ibíd., 42).

En la evangelización, por tanto, el ejemplo de vida cristiana y el anuncio de Cristo van juntos; uno sirve al otro. Son dos pulmones con los que debe respirar toda comunidad para ser misionera. Este testimonio completo, coherente y gozoso de Cristo será ciertamente la fuerza de atracción para el crecimiento de la Iglesia incluso en el tercer milenio. Exhorto por tanto a todos a retomar la valentía, la franqueza, esa parresia de los primeros cristianos, para testimoniar a Cristo con palabras y obras, en cada ámbito de la vida.

## 2. «Hasta los confines de la tierra» - La actualidad perenne de una misión de evangelización universal

Exhortando a los discípulos a ser sus testigos, el Señor resucitado les anuncia adónde son enviados: “a Jerusalén, a toda Judea, a Samaría y hasta los confines de la tierra” (cf. *Hch* 1,8). Aquí surge evidente el carácter universal de la misión de los discípulos. Se pone de relieve el movimiento geográfico “centrífugo”, casi a círculos concéntricos, de Jerusalén, considerada por la tradición judía como el centro del mundo, a Judea y Samaría, y hasta “los confines de la tierra”. No son enviados a hacer



Azken finean, kristau-lekukotzari dagokionez, beti izaten da baliozkoa San Paulo VI.aren esana: «Gaur egungo gizakiak atseginago entzuten die lekukotasuna ematen dutenei irakasten dutenei baino, edo irakasten dutenei entzuten badiete, testigantza ematen dutelako da» (*Evangelii nuntiandi* Aholku-hitz apostolicoa, 41). Horregatik, fedea transmititzeko funtsezkoa da kristauen bizitza ebanjelikoaren lekukotza. Bestalde, oraindik ere beharrezkoa da bere pertsona eta mezua jakinaraztea. Hain zuzen, Paulo VI.ak berak honela jarraitzen du: «Bai, ezinbestekoa da beti predikazioa, mezu baten ahozko aldarrikapena. [...] Hitzak beti irauten du gaurkotasunez, batez ere Jainkoaren boterearekin batera doanean. Horregatik, San Pauloren axiomak ere gaurkotasunari eusten dio: “fedea entzumenetik dator” (*Erm 10,17*), hau da, *entzundako hitza da sinestera gonbidatzen duena*» (*ibid.*, 42).

Ebanjelizazioan, beraz, kristau-bizitzaren adibidea eta Kristoren iragarpena batera doaz; batek bestea zerbitzatzen du. Elkarrekin orok, misiolari izateko, bi birikekin arnastu behar du. Kristoren lekukotza oso, koherente eta gozo hori izango da, zalan-tzarik gabe, Elizaren hazkunderako erakarpen-indarra, baita hirugarren milurtekoan ere. Beraz, guztiei eskatzen diet ausardia, zintzotasuna, lehen kristauen *parresia* hura, Kristoren testigantza hitzekin eta egintzekin emateko, bizitzaren esparru bakoitzean.

## 2. «Lurraren bazterreraino» Ebanjelizazio unibertsaleko misio baten gaurkotasuna

Ikasleei bere lekuko izan daitezen eskatuz, Jaun piztuak nora bidali dituen jakinarazi die: “Jerusalemera, Judea osora, Samaria eta lurraren bazterreraino” (ik. *Eg 1,8*). Hor nabaria da ikasleen misioaren izaera unibertsala. Nabari da Jerusalem mugimendu geografiko “zentrifugoa”, ia zirkulu zentrokideetara, zeina, juduen tradizioaren arabera, munduaren erdigunetzat hartzen baita, Judea eta Samaria, eta baita “lurraren bazterrak” ere. Ez

proselitismo, sino a anunciar; el cristiano no hace proselitismo. Los Hechos de los Apóstoles nos narran este movimiento misionero que nos da una hermosa imagen de la Iglesia “en salida” para cumplir su vocación de testimoniar a Cristo Señor, guiada por la Providencia divina mediante las concretas circunstancias de la vida. Los primeros cristianos, en efecto, fueron perseguidos en Jerusalén y por eso se dispersaron en Judea y Samaría, y anunciaron a Cristo por todas partes (cf. *Hch* 8,1.4).

Algo parecido sucede también en nuestro tiempo. A causa de las persecuciones religiosas y situaciones de guerra y violencia, muchos cristianos se han visto obligados a huir de su tierra hacia otros países. Estamos agradecidos con estos hermanos y hermanas que no se cierran en el sufrimiento, sino que dan testimonio de Cristo y del amor de Dios en los países que los acogen. A esto los exhortaba san Pablo VI considerando «la responsabilidad que recae sobre los emigrantes en los países que los reciben» (Exhort. ap. *Evangelii nuntiandi*, 21). Experimentamos, en efecto, cada vez más, cómo la presencia de fieles de diversas nacionalidades enriquece el rostro de las parroquias y las hace más universales, más católicas. En consecuencia, la atención pastoral de los migrantes es una actividad misionera que no hay que descuidar, que también podrá ayudar a los fieles locales a redescubrir la alegría de la fe cristiana que han recibido.

La indicación “hasta los confines de la tierra” deberá interrogar a los discípulos de Jesús de todo tiempo y los debe impulsar a ir siempre más allá de los lugares habituales para dar testimonio de Él. A pesar de todas las facilidades que el progreso de la modernidad ha hecho posible, existen todavía hoy zonas geográficas donde los misioneros, testigos de Cristo, no han llegado con la Buena Noticia de su amor. Por otra parte, ninguna realidad humana es extraña a la atención de los discípulos de Cristo en su misión. La Iglesia de Cristo era, es y será siempre “en salida” hacia nuevos horizontes geográficos, sociales y existenciales, hacia lugares y situaciones humanas “límites”, para dar testimonio de

dira proselitismoa egitera bidaliak, iragartzera baizik; kristauak ez du proselitismorik egiten. Apostoluen Eginak liburuak misiolarien mugimendu hori kontatzen digu. Mugimendu horrek Elizaren irudi ederra ematen digu, “irteeran” dagoen elizarena, Kristo Jauna testigantza emateko bokazioa betetzeko, Jainkoaren Probidentziak lagunduta, bizitzaren inguruabar zehatzen bidez. Lehen kristauak, izan ere, Jerusalemen jazarri zituzten eta horregatik sakabanatu ziren Judean eta Samarian, eta Kristo leku guztietan iragarri zuten (ik. *Eg* 8,1.4).

Antzeko zerbait gertatzen da gure garaian ere. Erljio arrazoiengatik pertsegituak izateagatik eta gerra eta indarkeria egoeren ondorioz, kristau askok beren lurretik beste herrialde batzuetara ihes egin behar izan dute. Eskerrak eman nahi dizkiegu sufrimenduan ixten ez diren anai-arreba hauei, Kristoren eta Jainkoaren maitasunaren testigantza ematen baitute harrera egiten dieten herrialdeetan. Horri eskatzen zuen Paulo VI.ak, «etorkinak jasotzen dituzten herrialdeetan duten erantzukizuna» kontuan hartuta (*Evangelii nuntiandi* Aholku-hitz aposolikoa, 21). Izan ere, hainbat nazionalitatetako fededunak egoteak parrokien aurpegia aberasten duela eta unibertsalago, katolikoago bihurtzen dituela ohartzen gara. Horrenbestez, migratzaileen arreta pastoral misiolaria da, eta ez da alde batera utzi behar; herriko fededunei ere lagundu ahal izango die jaso duten kristau-fedearen poza ezagutzen.

“Lurraren bazterreraino” adierazpenak Jesusen jarraitzaileei pentsarazi beharko die denbora guztian, eta Jesusen lekukotza emateko ohiko lekuetatik haratago joatera bultzatu behar ditu beti. Modernitateak aurrera egiteko erraztasun guztiak eman dituen arren, gaur egun oraindik ere badira eremu geografiko batzuk non misiolariak, Kristoren lekukoak, ez baitira iritsi bere maitasunaren Berri Onarekin. Bestalde, giza errealitate bat ere ez da arrotza Kristoren ikasleek duten misiogintzan. Kristoren Eliza beti zen, da eta izango da horizonte geografiko, sozial eta existentzial berrietara “irteeran” dagoena, giza leku

Cristo y de su amor a todos los hombres y las mujeres de cada pueblo, cultura y condición social. En este sentido, la misión también será siempre *missio ad gentes*, como nos ha enseñado el Concilio Vaticano II, porque la Iglesia siempre debe ir más lejos, más allá de sus propios confines, para anunciar el amor de Cristo a todos. A este respecto, quisiera recordar y agradecer a tantos misioneros que han gastado su vida para ir “más allá”, encarnando la caridad de Cristo hacia los numerosos hermanos y hermanas que han encontrado.

3. *«El Espíritu Santo vendrá sobre ustedes y recibirán su fuerza» -  
Dejarse fortalecer y guiar por el Espíritu*

Cristo resucitado, al anunciar a los discípulos la misión de ser sus testigos, les prometió también la gracia para una responsabilidad tan grande: «El Espíritu Santo vendrá sobre ustedes y recibirán su fuerza para que sean mis testigos» (*Hch* 1,8). Efectivamente, según el relato de los Hechos, fue inmediatamente después de la venida del Espíritu Santo sobre los discípulos de Jesús cuando por primera vez se dio testimonio de Cristo muerto y resucitado con un anuncio kerigmático, el denominado discurso misionero de san Pedro a los habitantes de Jerusalén. Así los discípulos de Jesús, que antes eran débiles, temerosos y cerrados, dieron inicio al periodo de la evangelización del mundo. El Espíritu Santo los fortaleció, les dio valentía y sabiduría para testimoniar a Cristo delante de todos.

Así como «nadie puede decir: “¡Jesús es el Señor!”, si no está movido por el Espíritu Santo» (1 Co 12,3), tampoco ningún cristiano puede dar testimonio pleno y genuino de Cristo el Señor sin la inspiración y el auxilio del Espíritu. Por eso todo discípulo misionero de Cristo está llamado a reconocer la importancia fundamental de la acción del Espíritu, a vivir con Él en lo cotidiano y recibir constantemente su fuerza e inspiración. Es más, especialmente cuando nos sentimos cansados, desanimados, perdidos, acordémonos de acudir al Espíritu Santo en la oración, que

eta “mugako” egoeretara, Kristoren eta haren maitasunaren testigantza emateko herri, kultura eta gizarte-egoera bakoitzeko gizon eta emakume guztiei. Alde horretatik, misioa beti izango da *missio ad gentes*, *Vatikanoko II. Kontzilioak* erakutsi digun bezala, Elizak beti urrunago joan behar duelako, bere kidekoetatik haratago, Kristoren maitasuna denei jakinarazteko. Horri dagokionez, gogora ekarri eta eskerrak eman nahi dizkiet hainbeste misiolariri, beren bizitza “haratago” joateko eman baitute, Kristoren maitasuna, topatu duten hainbat anai eta arrebari eramanez.

3. «Zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue»  
*Espirituari utzi sendotu eta gidatu gaitzan*

Kristo piztuak, ikasleei bere lekuko izateko misioa jakinaraztean, grazia agindu zien hain erantzukizun handia lortzeko: «Zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue» (Eg 1,8). Hain zuzen, Apostoluen Eginen kontakizunaren arabera, Espiritu Santua Jesusen jarraitzaileengana jaitsi bezain laster berehala emana izan zuten Kristo hil eta piztuaren testigantza, iragartze kerigmatiko baten bidez; ezaguna da Jerusalemgo biztanleei egindako San Pedroren misio-hitzaldia. Hala, lehen ahulak, beldurgarriak eta itxiak ziren Jesusen jarraitzaileek munduaren ebanjelizatzearen aldiari hasiera eman zioten. Espiritu Santuak indartu egin zituen, ausardia eta jakinduria eman zien Kristoren berri denei emateko.

«Inork ezin du esan: “Jesus Jauna da!”», Espiritu Santuak eraginik ez bada» (1 Ko 12,3), kristau bakar batek ere ezin du eman Kristoren lekukotza osoa eta jatorra Espirituaren eraginik eta laguntzarik gabe. Horregatik, Kristoren misiolari den ikasle orok Espirituaren egintzaren funtsezko garrantzia aitortu behar du, Espirituarekin eguneroko bizitzan bizi behar du, eta etengabe hartu behar ditu bere indarra eta eragina. Are gehiago, batez ere nekatuta, adorerik gabe, galduta sentitzen garenean, jo dezagun otoitz eginez Espiritu Santuarengana, zeren eta -beste behin

–quiero decirlo una vez más– tiene un papel fundamental en la vida misionera, para dejarnos reconfortar y fortalecer por Él, fuente divina e inextinguible de nuevas energías y de la alegría de compartir la vida de Cristo con los demás. «Recibir el gozo del Espíritu Santo es una gracia. Y es la única fuerza que podemos tener para predicar el Evangelio, para confesar la fe en el Señor» (*Mensaje a las Obras Misionales Pontificias*, 21 mayo 2020). El Espíritu es el verdadero protagonista de la misión, es Él quien da la palabra justa, en el momento preciso y en el modo apropiado.

También queremos leer a la luz de la acción del Espíritu Santo los aniversarios misioneros de este año 2022. La institución de la Sagrada Congregación de *Propaganda Fide*, en 1622, estuvo motivada por el deseo de promover el mandato misionero en nuevos territorios. ¡Una intuición providencial! La Congregación se reveló crucial para hacer que la misión evangelizadora de la Iglesia sea realmente tal, independiente de las injerencias de los poderes mundanos, con el fin de constituir las Iglesias locales que hoy muestran tanto vigor. Deseamos que la Congregación, como en los cuatro siglos pasados, con la luz y la fuerza del Espíritu, continúe e intensifique su trabajo de coordinar, organizar y animar la actividad misionera de la Iglesia.

El mismo Espíritu que guía la Iglesia universal, inspira también a hombres y mujeres sencillos para misiones extraordinarias. Y fue así como una joven francesa, Paulina Jaricot, fundó hace exactamente 200 años la Obra de la Propagación de la Fe; su beatificación se celebra en este año jubilar. Aun en condiciones precarias, ella acogió la inspiración de Dios para poner en movimiento una red de oración y colecta para los misioneros, de modo que los fieles pudieran participar activamente en la misión “hasta los confines de la tierra”. De esta genial idea nació la Jornada Mundial de las Misiones que celebramos cada año, y cuya colecta en todas las comunidades está destinada al fondo universal con el cual el Papa sostiene la actividad misionera.

esan nahi dut- funtsezko zeregina baitu misiolari-bizitzan, Berak adoretu eta sendotuak izatean, energia berriaren jainkozko iturri gertatzen baita Kristoren bizitza besteekin partekatzearen poz-iturri ere. «Espiritu Santuaren gozamina jasotzea grazia bat da. Eta hori da Ebanjelioa predikatzeko, Jainkoarengan fedea adierazteko izan dezakegun indar bakarra» (*Aita Santuaren Misio Ekintzei Mezua*, 2020ko maiatzaren 21a). Espiritua da misioaren benetako protagonista, berak ematen du bidezkoa den hitza, une egokian eta modu egokian.

Espiritu Santuaren egintzaren argitan irakurri nahi ditugu 2022ko urteurren misiolariak. *Propaganda Fide* Kongregazio Santuaren instituzioa, 1622an, lurralde berrietan misiolarien egintza sustatzeko nahiak eragin zuen. Jainkoak eragindako intuizioa! Kongregazioa erabakigarria izan zen Elizaren ebanjelizazio-eginkizuna egiazkoa izan zedin, munduko botereen eskuhartzeetatik aparte, gaur egun hain indarrean dauden tokiko elizak eratzeko. Kongregazioak, aurreko lau mendeetan bezala, Espirituaren argiarekin eta indarrarekin, Elizaren misio-jardura koordinatzeko, antolatzeke eta animatzeko lana jarraitu eta areagotzea nahi dugu.

Eliza unibertsala gidatzen duen espiritu berak gizon eta emakume apalak ere inspiratzen ditu ezohiko misioetarako. Hala, Paulina Jaricot gazte frantziarrak duela 200 urte sortu zuen, zehazki, Fedearen Hedapenaren Lana; jubileu urte honetan izango da bere dohatsu izendatzea. Nahiz eta baldintza eskasetan, Jainkoaren inspirazioa hartu zuen, otoitz-sare bat martxan jartzeko eta misiolariari laguntzeko diru-bilketak egiteko; hartara, fededunek aktiboki parte har zezaketen “Lurraren bazterrerainoko” misioan. Ideia bikain horretatik sortu zen urtero egiten dugun Misioen Munduko Jardunaldia, eta elkarte guztietan biltzen da Aita Santuak misio egintza laguntzeko erabiltzen duen funts unibertsala.

En este contexto recuerdo además al obispo francés Charles de Forbin-Janson, que comenzó la Obra de la Santa Infancia para promover la misión entre los niños con el lema “Los niños evangelizan a los niños, los niños rezan por los niños, los niños ayudan a los niños de todo el mundo”; así como a la señora Jeanne Bigard, que dio vida a la Obra de San Pedro Apóstol para el sostenimiento de los seminaristas y de los sacerdotes en tierra de misión. Estas tres obras misionales fueron reconocidas como «pontificias» precisamente cien años atrás. Y fue también bajo la inspiración y guía del Espíritu Santo que el beato Pablo Manna, nacido hace 150 años, fundó la actual Pontificia Unión Misional para animar y sensibilizar hacia la misión a los sacerdotes, a los religiosos y a las religiosas, y a todo el Pueblo de Dios. El mismo Pablo VI formó parte de esta última Obra y confirmó el reconocimiento pontificio. Menciono estas cuatro Obras Misionales Pontificias por sus grandes méritos históricos y también para invitarlos a alegrarse con ellas en este año especial por las actividades que llevan adelante para sostener la misión evangelizadora de la Iglesia universal y de las Iglesias locales. Espero que las Iglesias locales puedan encontrar en estas Obras un sólido instrumento para alimentar el espíritu misionero en el Pueblo de Dios.

Queridos hermanos y hermanas, sigo soñando con una Iglesia totalmente misionera y una nueva estación de la acción misionera en las comunidades cristianas. Y repito el deseo de Moisés para el pueblo de Dios en camino: «¡Ojalá todo el pueblo de Dios profetizara!» (Nm 11,29). Sí, ojalá todos nosotros fuéramos en la Iglesia lo que ya somos en virtud del bautismo: profetas, testigos y misioneros del Señor. Con la fuerza del Espíritu Santo y hasta los confines de la tierra. María, Reina de las misiones, ruega por nosotros.

*Roma, San Juan de Letrán, 6 de enero de 2022,  
Epifanía del Señor.*

**Francisco**



Testuinguru horretan, gainera, Charles de Forbin-Janson gotzain frantsesa gogoan dut, Haur Misiolarien Egintzari hasiera eman baitzion, haurren arteko misioa sustatzeko, “Haurrek haurrak ebanjelizatzen dituzte, haurrek lagundu egiten diete mundu osoko haurrei” lemapean; eta Jeanne Bigard andrea ere gogoan dut, San Pedroren Egintzari hasiera eman baitzion. Hiru misiolan horiek duela ehun urte, hain zuzen, “Aita Santuaren Egintzatat” hartu ziren. Eta Espiritu Santuaren eragin eta gidaritzapean sortu zuen, halaber, Pablo Manna dohatsuak, duela 150 urte jaioak, egungo Aita Santuaren Batasun Misiolaria, apaizak, erlijiosoak eta Jainkoaren Herri osoa misioaren inguruan animatzeko eta sentsibilizatzeko. Pablo VI.a bera izan zen azken lan horren parte, eta bere aitortza eman zion. Aita Santuaren lau Misio Egintza hauek aipatu ditut, beren meritu historiko handiengatik, eta, era berean, Eliza unibertsalaren eta tokiko elizen ebanjelizazio-misioari eusteko egiten ari diren jarduerengatik urte berezi honetan horiekin poztera gonbidatzeko. Espero dut tokiko elizek Jainkoaren Herrian misiolari-espiritua elikatzeke tresna sendoa aurkituko dutela Egintza hauetan.

Anai-arreba maiteok, Eliza erabat misiolari batekin eta kristau kristauetako misiolarien une berri batekin amets egiten jarraitzen dut. Eta Moisesek bidean den Jainkoaren herriarentzat zuen nahia errepikatzen dut: «Nahiago nuke herri osoa profeta bihurtzea» (*Zen 11, 29*). Bai, nahiago genuke bataioaren arabera dagoeneko garena, izatez Elizan bagina: profetak, Jaunaren lekuko eta misiolariak. Espiritu Santuaren indarrarekin eta lurrraren bazterreraino. Maria, Misioen erregina, otoitz gure alde.

*Erroma, Letrango San Joan,  
2022ko urtarrilaren 6a, Jaunaren Agerkundera.*  
**Frantzisko**

## **“SERÉIS MIS TESTIGOS”**

### **DOMUND 2022**

Celebramos el próximo domingo 23 de octubre la Jornada Mundial de las Misiones -Domund- con el lema “*Seréis mis testigos*”. Antes de su Ascensión al Cielo, Jesús encomienda a sus discípulos la tarea de la evangelización. Los discípulos reciben la misión de dar testimonio de Jesús en todos los lugares de la tierra con la fuerza del Espíritu Santo.

El Domund es una fecha para pensar, orar, agradecer y ayudar a nuestros misioneros. Ellos son, ciertamente, la cara más amable y abnegada de la Iglesia; sacerdotes, laicos, religiosos y religiosas que han dejado familia, país, la comodidad de la vida occidental, para anunciar a Jesucristo en los países más desfavorecidos del mundo. Además de anunciar la Buena Noticia del Evangelio, contribuyen al desarrollo con proyectos educativos, sanitarios, sociales, mostrando que la evangelización transforma y engrandece al ser humano.

Pero, al mismo tiempo, el Domund nos recuerda el mandato misionero que despierta nuestra conciencia de que todos somos misioneros. La misión no es vocación de unos pocos sino llamada universal para los seguidores de Cristo. Por ello, urge reavivar en nosotros el celo apostólico, el sentido evangelizador y misionero, que es inseparable de nuestra condición de bautizados. Así nos lo recuerda el Papa Francisco en su Exhortación Apostólica “*Evangelii Gaudium*”, cuando señala que “*la actividad misionera representa aún hoy día el mayor desafío para la Iglesia y la causa misionera debe ser la primera*”. En el Mensaje del Santo Padre para esta Jornada Mundial de las Misiones, nos invita, igualmente, a ser testigos de Cristo del mismo modo que “*la Iglesia, comunidad*

## **“NIRE LEKUKO IZANGO ZARETE” DOMUND 2022**

Urriaren 23an, igandea, Misioen Mundu Eguna Domund ospatuko da, “*Nire lekuko izango zarete*” lelopean. Zerura igo aurretik, Jesusek ebanjelizatzeko eginkizuna agindu zien bere ikasleei. Lurreko leku guztietan Espiritu Santuaren indarrak Jesusen lekukotasuna emateko misioa jaso zuten ikasleek.

Domund eguna pentsatzeko eguna da; otoitz egiteko, eskertzeko eta gure misiolariari laguntzeko eguna. Haiek dira, hain zuzen ere, Elizaren aurpegiak adeitsuena, eta sakrifizio handien egile; izan ere, apaiz, laiko nahiz erlijiosoek atzean utzi dituzte familia, herria eta Mendebaldeko bizimoduaren erosotasuna, munduko herrialderik baztertuenetan Jesu Kristo iragartzeko. Ebanjelioaren Berri Ona hots egiteaz gain, garapenean laguntzen dute hezkuntza-, osasun- nahiz gizarte-proiektuekin, ebanjelizazioak eraldatu egiten duela eta gizakia handi egiten duela erakutsiz.

Baina, aldi berean, Domund egunak misiorako agindua ekartzen digu gogora, hau da, gogorarazten digu guztiok garela misiolari. Misioaritzza ez da gutxi batzuen bokazioa, baizik eta Kristoren jarraitzaileentzako dei unibertuala. Horregatik, premiazkoa da gugan apostolu-grina berpiztea, sen ebanjelizatzailea eta misiolaria berpiztea, ezaugarri hori bereizi ezina baita bataiatu garen guztiongandik. Hala gogorarazten digu Frantzisko aita santuak bere “*Evangelii Gaudium*” Aholku-hitz Apostolikoan, adierazten baitu “*misiolari-jarduera dela, gaur egun ere, Elizaren erronkarik handiena, eta misioaritzaren aldeko kausak behar duela izan lehenetsuna*”. Misioen Mundu Egun honetarako Aita Santuak emandako mezuan, era berean, Kristoren lekuko

*de los discípulos de Cristo, no tiene otra misión sino la de evangelizar el mundo dando testimonio de Cristo. La identidad de la Iglesia es evangelizar”.*

En un contexto marcado por la incertidumbre, las crisis económica y de valores, la pandemia vivida en estos últimos tiempos..., Dios nos invita a salir de nosotros mismos por amor a Él y al prójimo. Es una oportunidad para compartir, servir e interceder, momento para escuchar la invitación del Señor: “*Seréis mis testigos*” (Hch 1, 8). Dios nos ha revelado que su amor es para todos y para cada uno de nosotros. Ahora bien, la respuesta a su llamada ha de ser una respuesta personal, libre y consciente.

La fe cristiana es un encuentro con Cristo que cambia la vida. Después de conocer al Señor nadie puede permanecer indiferente. Conocer a Jesús es conocer el amor que Dios nos tiene; el amor de Dios se ha manifestado en que ha enviado a su Hijo para que el mundo se salve por Él (cfr. Jn 3, 16-21). Pero además de cambiarnos la vida, de llenarla de esperanza y de sentido, el amor de Dios nos lleva a anunciar y compartir “lo que hemos visto y oído”. Jesús nos envía al mundo no sólo para *realizar* la misión sino también y sobre todo para *vivir* la misión que nos confía; no sólo para *dar* testimonio sino también y sobre todo para *ser* sus testigos.

Somos llamados a comunicar la Buena Noticia del Evangelio. Pero la misión no se realiza de manera individual sino conjunta, en comunión con la comunidad eclesial y no por propia iniciativa. No es casual que Jesús enviara a sus discípulos en misión de dos en dos.

El anuncio de Cristo va unido al ejemplo de vida cristiana, son dos pulmones con los que debe respirar toda comunidad para ser misionera. Por ello, os animo a “*retomar la valentía, la franqueza, esa parresia de los primeros cristianos, para testimoniar a Cristo con palabras y obras en cada ámbito de la vida*” (Mensaje del Santo Padre Francisco para la Jornada Mundial de las Misiones 2022).

izatera dei egiten zaigu, “*Elizak, Kristoren ikasleen elkarteak izanik, ez baitu beste misiorik, mundua ebanjelizatzea baizik, Kristoren lekukotasuna emanaz. Elizaren identitatea ebanjelizatzea da*”.

Gaur egun nagusi ditugu ziurgabetasuna, ekonomiaren eta baloreen krisia, azken garaian bizi izandako pandemia... Eta giro horretan, Jainkoak dei egiten digu geure txokotik atera gaitzen, berarenganako eta lagun hurkoarenganako maitasunagatik. Partekatzeke, zerbitzatzeko eta bitartekari izateko aukera bat da, Jainkoaren deia entzuteko unea: “*nire lekuko izango zarete*” (Eg 1,8). Jainkoak ikusarazi digu guzti-guztiantzat dela bere maitasuna. Haren deiari ematen diogun erantzunak, ordea, pertsonala, libre eta kontzientea izan behar du.

Kristau-fedea Kristorekin bat egitea da, eta horrek bizitza eraldatzen du. Jainkoa ezagutu ondoren inor ezin da axolagabe geratu. Jesus ezagutzea Jainkoak guganako duen maitasuna eza gutzea da; Jainkoak bere maitasuna agertu digu, bere semea bidali duenean, haren bitartez mundua salbatzera (cfr. Jn 3,16-21). Baina Jainkoaren maitasunak, bizitza eraldatzeaz gain, itxaropenez eta zentzuz betetzeaz gain, “*ikusi eta entzun duguna*” iragartzera eta partekatzerara eramaten gaitu. Jesusek misioa *gauzatzer*a bidali gaitu mundura, bai, baina ez horretara bakarrik; izan ere, batik bat, eman digun misioa *bizitzera* bidali gaitu; lekukotasuna *ematera* bidali gaitu, bai, baina batik bat haren lekuko *izatera*.

Ebanjelioaren Berri Ona hots egitera deituak gara. Baina misioa ez du norberak bakarrik egiten, elkarlanean baizik, Eliza-elkartearekin bat eginik, eta ez nork bere kabuz. Ez baita kasualitatea Jesusek bere ikasleak misiora binaka bidali izana.

Kristoren iragarpena oso lotuta dago kristau-bizitzaren ereduarekin; bi birika dira, haien bitartez komunitate osoak misio-lari-arnasa har dezan. Horregatik animatzen zaituztet “*hasierako kristau haien “parresia” berreskuratzera, Kristoren lekukotasuna auzardiaz eta argi emateko, hitzez eta ekintzez, bizitzaren arlo guztietan*” (2022ko Misioen Mundu Egunerako Frantzisko aita santuak emandako mezua).

Que María, Reina de las Misiones, presente en el comienzo de la Iglesia misionera en Pentecostés, sea nuestra guía y modelo en el camino de la fe.

Con mi afecto y bendición,

**+ Francisco Pérez González**  
Administrador Apostólico de San Sebastián

Maria, Misioen Erregina, Eliza misiolariaren hasieraren lekuko Mendekosten, izan bedi gure gidari eta eredu fedearen bidean.

Har itzazue nire maitasuna eta bedeinkapena,

**+ Francisco Pérez González**  
Donostiako Administratzaile Apostolikoa

**DOMINGO XXX. DEL TIEMPO ORDINARIO**  
***DOMUND: Seréis mis testigos***

**Saludo**

La gracia y la paz del Señor Jesús estén con todos vosotros.

**Monición de entrada**

Nos hemos reunido en la asamblea de los Bautizados. Quienes fuimos traídos a las aguas del Bautismo e iluminados por la fe confesamos al Señor Jesús como liberador y alegría para nuestra vida. Esta es la asamblea de quienes buscan la luz, de los que desean ver.

En este penúltimo domingo de octubre celebramos el DOMUND, domingo de misiones con este lema: «Seréis mis testigos». Tenemos entre manos la mejor Noticia: Cristo, el Hijo de Dios que nos ama sin límites, ha dado su vida por nosotros. Hemos recibido la tarea, la misión de propagar esa noticia hasta los confines del mundo.

**Acto penitencial**

Comencemos humildemente, disponiéndonos a aceptar la misericordia gozosa de Dios.

- Tú que has venido a buscar al que estaba perdido:  
Señor, ten piedad.
- Tú que has querido dar la vida en rescate por todos:  
Cristo, ten piedad.



## URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA

### *DOMUND: Nire lekuko izango zarete*

#### **Agurra**

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

#### **Sarrerako oharpena**

Bataiatuon batzarrera bildu gara. Bataioko uretara ekarriak eta fedez argituak izan ginenok Jesus Jauna aitortzen dugu gure bizitzaren askatzaile eta poz. Hau da argi bila dabiltzanen batzarrera, hau, ikusi nahi dutenen mahaia.

Urriako azken-aurreko igande honetan DOMUND, misio igandea ospatzen dugu aurten ere, goiburu honekin: «Nire lekuko izango zarete». Berririk onena dugu esku artean: Kristok, Jainkoaren Semeak, neurrigabe maite gaituenak, gugatik eman du bere bizia. Hori bazter guztietara eramateko misioa, eginkizuna, jaso dugu.

#### **Damu-otoitza**

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari

- Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

— Tú que reúnes a tus hijos dispersos: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna.

### **Oración colecta**

*(Misa “Por la evangelización de los pueblos”. Misal Romano pág. 928-929)*

**Oh Dios, que enviaste al mundo a tu Hijo  
como luz verdadera, derrama tu Espíritu  
para que siembre la semilla de la verdad  
en el corazón de los hombres y suscite en ellos la fe,  
de modo que todos,  
renacidos a una nueva vida por medio del bautismo  
lleguen a formar parte de tu único pueblo.  
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,  
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo  
y es Dios por los siglos de los siglos.**

### **Monición a la liturgia de la palabra**

Quienes valen poco ante los ojos humanos, los arrinconados y los pobres, son los preferidos de Dios. Interioricemos su Palabra, para que nos haga semejantes a él.

### **Oración de los fieles**

Dirijamos nuestra oración a Dios, que quiere el bien de todos los hombres y mujeres:

— Para que el Señor encienda en el corazón de los fieles el deseo de anunciar le Buena noticia y alcanzar la salvación y la alegría de todos. Roguemos al Señor.

- Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

## **Otoitza**

*(“Herrien Ebanjelizatzerako” A - Meza. Meza liburua 1168-1170. orr.)*

**Oi Jainko,  
zeure Semea bidali duzu mundura egiazko argitzat;  
isuri agindutako Espiritu Santua,  
gizon-emakumeen bihotzean egiaren hazia erein  
eta fedearen aitormena eragin dezan;  
eta egizu, denek, Bataioaren bidez bizi berrira jaiorik,  
irits dezatela zure herri bakarrean sartzea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## **Hitzaren liturgiari oharpena**

Gizartearen begietan ezer gutxi balio dutenak, baztertuak eta behartsuak: horiek ditu gogokoen Jainkoak. Barnera dezagun bere Hitza, bere antzeko egin gaitzan.

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: egiogun otoitz gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

- Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaigun Jaunari.

- Para que, superando las dificultades que dividen a pueblos y razas toda la humanidad trate de vivir en igualdad y justicia. Roguemos al Señor.
- Por los misioneros y misioneras, para que su dicha sea imitar a Jesús, dándose a los demás en el servicio del Evangelio. Roguemos al Señor.
- Para que los emigrantes y los refugiados, los que la sociedad margina y todos los que se sienten abandonados se sientan protegidos por Dios y acogidos por todos. Roguemos al Señor.
- Para que Dios nos fortalezca en su amor, a fin de que seamos servidores más fieles y nos parezcamos cada día más a Cristo. Roguemos al Señor.

Oh Dios tu no miras al renombre de los hombres y mujeres, sino que estás siempre atento a las necesidades de los pobres; míranos, a quienes como el publicano queremos acercarnos humildemente a ti y haz que, abajados como él, seamos enaltecidos en su reino. Por Jesucristo nuestro Señor.

### **En el momento de la colecta**

Traemos el pan y el vino al altar, par que Jesús se haga presente entre nosotros en la Eucaristía. También manifestamos nuestra generosidad con la colecta del DOMUND.

### **Oración después de la comunión**

**Fortalecidos, Señor,  
por el banquete de nuestra redención,  
te pedimos que, por este auxilio de salvación eterna,  
crezca sin cesar en el mundo la fe verdadera.  
Por Jesucristo, nuestro Señor.**

- Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gaindituz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Misiolari guztien alde, Jesusen antzeko izatea bedi beraien poza, Ebanjelioaren zerbitzuan besteentzat biziz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etorkinak eta iheslariak, gizarteak baztertzan dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezten Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Zuk ez diozu begiratzen gizakien ospeari, baizik eta behartsuen alde diharduzu beti; begira iezaguzu zergalariaren antzera zugana apal agertu nahi dugun Zure zerbitzarioi eta egizu Bera bezala beheraturik Zure erreinuan goratuak izan gaitzela. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

## **Eukaristiaren liturgiari oharpena**

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean gaur DOMUND dela gogoratuz.

## **Jaunartze ondorengo otoitza**

**Indarberritu egin gaituzu, Jauna,  
gure erospeneko sakramentuaren bidez;  
egizu, betiereko salbamenaren janari honi esker,  
egin dezagula beti aurrera egiazko fedean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**



**DOMUND 2022**  
**(2021eko diru-eskearen laburpena)**

<u>Artziprestaldea</u>	<u>euro</u>
Beterri .....	11.048,67
Donostia .....	45.334,23
Ekialde .....	16.127,70
Goierry .....	9.926,60
Mendebalde .....	14.394,61
Urola-Kosta .....	14.339,56
Beste zenbait .....	<u>6.187,96</u>
<b>GUZTIRA:.....</b>	<b><u>117.359,33</u></b>

